



Sagardoa Bultzatuz

ATZO aurkeztu zen «Gure sagardoa» liburua Eusko Jaur-laritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean egindakoa.

Ekitaldi honetan Goikoetxea jauna, Nekazaritza eta Arrantzú sailaren sailburuordea, Aizarna jauna Gipuzkoako JJ.GG.ko nagusia eta José M.^o Irizar Sagardogile elkarteko arduraduna egon ziren.

Liburua oso landua dago bai textu aldetik eta bai argazki mailan. Hauek Sigfrido Kocherenak dira eta textua Jose Uriarena.

Argitarapen hau, beraz, oso atzegina dugu eta sagardoa maite dutenak liburua irakurritz alaituko dira.

Honela hasten da liburua eta hizkuntza gozox honetik ere bukatzen da:

«Gure sagardo eta gardenak gure baserriez hitz egiten digu. Gure mendiez. Euskal Herriaren historiaz.

Bere sorrera, gure herriarekin izan duen lotura hertsia, antzinatean zehar eskutatzen da.

Eta gaur, sagardo zurrustada bat gure ahoan alai isurtzen denean, bere jatorriei buruz ari zaigula nabaritzen dugu. Gure iragan propioaz, hain zuzen.

Lur hay, eguzkia, euria eta gure arbasoen ardura eta arretak ziren sagastia ingurugiro egokienean kokatzen zutenak.

Euskal Herriko mendi eta baso guztietan berez ernetzen zen. Bere fruituak emateko grinaz, eta sagar horiek sagardo egin zitezen irrikan. Misteriozki. Sorginkeriaz ia.»